

# Ezpalak

GORKA BEREZIARTUA

## 'Iduzkimore' antzezlanaren 3an Domintxinen



EKAINEAN sei aldiz jokatu dute *Iduzkimore* antzezlanaren, eta izandako harrera ikusirik, beste saio bat prestatu du Kitzikazan/k taldeak irailaren 3rako. Domintxineko salan izango da, arratsaldeko zortziak eta erdietan. XVII. mendeko Euskal Herrira eramango gaitu obra honek. 1609an gaude: Bordeletik zaldi karro batzuk abiatu dira Baionarantz, parlamentuko zenbait

kide eramateko, tartean Pierre de Lancre. Izua eta herioa Lapurdira iritsiko dira De Lancre gurditik jaitsi bezain pronto.

## Bizkaiko Aldundia Bastida eraikina babestearren kontra


EUSKO JAURLARITZAK Sukarrietako Bastida eraikina babesteko prozesua abian jarri du eta lehia sortu da erakunde autonomikoaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean. Eremita horretan kokatzen zen Aldundiak egin gura duen Guggenheim berriaren proiektua, eta ondorioz, Bizkaiko Diputazioak alegazioak aurkeztu dizkio zonaldea babesteko prozesuari. Jaurlaritzak sustatutako babes-prozedura bururaino eramanez gero, Bastida eraikina Euskal Kultur Ondarearen zerrendan sartuko litzateke, eta beraz, Aldundiak ezingo luke Guggenheim berria eraiki.

**Juan Berrozperen** lanak ikusteko aukera izango da Gasteizko Ikusiarte Galerian irailaren 16a bitartean. Hainbat sari irabazi ditu artista donostiarrak orain arte egindako ibilbidean eta, Gasteizko erakusketan, hiriko paisaiak erakusten dituzten lanak dira nagusi.

**Atom Rhumba**, Chico Boom eta Mantis taldeen kontzertuekin abiatuko da irailaren 10ean Donostikluba Zirkuitua. Hortik aurrera, hainbat talde ariko dira Donostian irailean eta urrian: Damien Jurado, Standstill, Morodo, Klaus&Kinski... Elektronikatik reggaera estilo ugari uztartuko dira, urtetik urtera indartzen ari den programan.

**Euskal Kultur Erakundeak** Gure Munduak izeneko webgunea sortu du ([www.guremunduak.com](http://www.guremunduak.com)). Interneteko leku horretan erabiltzaile bakoitzak espazio bat sortzen du eta bertan argazki-albumak gehitu ditzake. Xedea, euskal mundua argazkien bidez eta modu parte-hartzailean sareratzea da.

• **Borja Cobeaga zinema-zuzendariak *Noticias de Gipuzkoa* egunkariari esanak:** «Badago lotsa moduko bat komedia egiterakoan, izan ere, drama egin eta jendeak ez badu gustuko, berdin da, baina komedia egin eta ez badute barrerik egiten patetiko da. Umorearen galera nabarmena dago gaur egungo zinemaren. Lehen, pelikula guztietan, baita pelikularik serioenetan ere, umore apur bat zegoen; orain, ordea, ez. Umorezko zerbait egitea badirudi ez dela hain garrantzitsua eta hain serioa».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: [www.argia.com/harpidetza\\_haria.php](http://www.argia.com/harpidetza_haria.php)



## Atxaspi Hotela

Bittiria 24  
Lesaka (Nafarroa)  
T 948 637 536

[hotela@atxaspi.com](mailto:hotela@atxaspi.com)  
[www.atxaspi.com](http://www.atxaspi.com)